

Itzal suntsigarrien gaua



Itzal suntsigarrien gaua

Egilea: Agustín Fernández Paz
 Itzultzailea: Manu Lopez Gaseni
 Argitaratze urtea: 2005
 Argitaletxea: Pamiela

MIKEL GARMENDIA

Hasiera batean gazte literaturan hain ohikoa den egoera batean gaudela irudi dezake: Sara, hamasei urteko neskatoa, amonarenera doa udako oporrak pasatzera eta uda hartako abenturak izango ditugu irakurgai. Sarak berak –egileak berak– ohartaraziko digu, ordea, ez dela inondik inora hori segidan datorkiguna: "Ondo dakit, koaderno hau nerabeen egunkari tipikoa izatera, gazte eleberrietan hainbestetan irakurriak ditudan bezalakoak, Danielekin bizi izandako ordu suharrak kontatu beharko nituzkeela orain". Sarak Danielekin izandako amodiozko abenturak ere badu lekua, noski, eleberri honen egituran. Harantzago doa, ordea, planteamendua. Sarak berak kontatuko digu –eleberriko pertsonaia eta, aldi berean, narratzailea denez– bizitzan izaten direla halako gertakari batzuk mugarri bihurtzen direnak. Gure kasuan, nerabetasunetik heldutasunera iraganaraziko dio Sarari amonaren etxean egindako deskubrimendu batek. Osaba Montxo zenaren gela misteriotsuan lo egitea egokitu zaio Sarari. Hasieratik beretik nabarituko du gela barruan Osaba Montxoren presentzia, zer edo zer bilatzera bultzatuko duena. Bilatu eta baita aurkitu ere gelako zoko ezkutu batean gordetako hainbat gutun. Gutun haietatik abiatuta, harreman-mota berri bat hasiko du Sarak amarekin, helduen arteko elkarrizketa, benetako, osaba Montxoren historia gogorra eta, horrekin batera, belaunaldi batek ahanzturan utzitako historia, gerraondokoa, berreskuratzen lagunduko diona. Izan baitzen belaunaldi bat, bestelako mundu baten aldeko borrokan dena eman zuena. Gazteek nahitaez jakin beharreko historia, eleberri zirraragarri baten bidez emana. Eta zirraragarria diogu, ez soilik osaba Montxok pertsonalki bizitakoak –espexea, maitea galtzea... – helarazten zaizkigulako, baita uda hartan egindako deskubrimenduak eleberriaren amaieraraino ebatziko ez den misterio bat eskaintzen digulako ere. Osaba Montxok, preso egondako uhartean, zerbait utzi zuen bertako hilerrian gordeta eta hura aurkitu bitartean Sarak eta bere amak egindako ikerketak ez du atsedunik izango kontakizunaren amaierara arte, eta irakurleok ere ez.

Hori izango da hari nagusia eta, esan bezala, hari nagusi horren inguruan eta aldi berean gertatzen dira gainerakoak: udako festak, Danielekiko amodio-istorioa... Dena ongi bilbatua eta egituratua dago, ordea, eta hala, hari nagusiari batera trabarik egin gabe irakurtzen ditugu segidan Sarak –osaba Montxoren andregaiak, protagonistaren izen berekoak– senargaiari idatzitako gutunak, gustuko zituzten idazleen poemak (Neruda...). Alde horretatik, ederki txertatuta daude garai hartako belaunaldi borrokalari haren erreferente literarioak, Galizakoak eta gainerakoak.

Hala, osaba Montxok hilerrian ezkutatutako objektua aurkitu arte, ia arnasarik hartu gabe eramango gaitu narratzaileak kontakizunaren amaieraraino, non objektuaren distiraren eta Jack Londonen aipamen baten arteko jokoak egingo digun: "Aukeran nahiago dut, planeta logaletu eta egonkor bat izatea baino, atomo guztiak distira apartarekin ñirñirka dituen meteorito bikain bat izatea".

Itzulpenari dagokionez, testuak normalean ongi kurritzen badu ere, badira pasarte batzuk korapilatsu samar gertatzen direnak, zentzua harrapatzeko birritan irakurri beharrekoak. Labur beharrez, aipatu besterik ez dut egingo zerk eragiten duen trabatze hori: batetik,

nekeza gertatzen da zenbaitetan eskuineratutako erlatibozko esaldi batzuen erreferentzia identifikatzea eta, bestetik, paragrafo batzuetan atzeregi gelditzen da aditza. Erreferente horiek errazago identifikatzeko aukera emateak eta aipatutako paragrafo horietan aditza aurreratzeak egundoko mesedea egingo liokete eleberri eder honi.